

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

OGASUN SAILA

Behin betiko onespena ematea Hiri-Lurren Balio-Gehikuntzaren gaineko Zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren aldakuntzari

Vitoria-Gasteizko Udalbatzak behin-behineko onespena eman zion Hiri-Lurren Balio-Gehikuntzaren gaineko Zerga (udal-gainbalioa) arautzen duen ordenantza fiskalaren aldakuntzari, 2025eko maiatzaren 7an egindako osoko bilkuran.

Jendaurreko erakustaldiaren iragarkia 2025ko maiatzaren 12ko ALHAOn argitaratu zen, baita lurralde historikoan zabalkunderik handiena duten egunkarietako bitan eta Vitoria-Gasteizko Udalaren iragarki-taulan eta webgunean ere.

Jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik aurkeztu ez denez, behin betikotzat jotzen da, besterik gabe, udalbatzak ordenantza fiskala aldatzeko hartutako behin-behineko erabakia, zeinen testua argitara ematen baita, Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko Foru Gobernu Kontseiluaren 1/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren 19.4 artikulua betetze aldera.

Behin betiko onespeneren kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren aurrean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10. eta 46.1 artikuluen ildotik, bi hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik, egokitzen jotzen den beste edozein aurkezteko aukera gorabehera.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko ekainaren 23an

Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria
JON ARMENTIA FRUCTUOSO

**Hiri-Lurren Balio-Gehikuntzaren gaineko Zerga
arautzen duen ordenantza fiskala**

10.1 artikulua

Koefizienteen taula

SORTZE-ALDIA	KOEFIZIENTEA
Urtebetetik behera	0,15
Urtebete	0,15
2 urte	0,14
3 urte	0,14
4 urte	0,16
5 urte	0,18
6 urte	0,19
7 urte	0,18
8 urte	0,15
9 urte	0,12
10 urte	0,10
11 urte	0,09
12 urte	0,09
13 urte	0,09
14 urte	0,09
15 urte	0,09
16 urte	0,10
17 urte	0,13
18 urte	0,17
19 urte	0,23
20 urte edo gehiago	0,40

Eta 3.4, 4 bis eta 6. artikuluetan —zein izatezko bikoteen tratamendu fiskala jorratzen baitute—, kendu egin da hitzez hitzeko testu hau: “Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eratua”

Koefizienteen taula berria 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera sortutako zerga-egitateei aplika-tuko zaie, abenduaren 20ko 19/2024 Forua Arauaren arabera, 2025. urterako zerga neurriei buruz.